



Bai Euskarari ziurtagiria jaso dute eskualdeko 79 gizarte eragilek

KONPROMISOA ▶ Hizkuntzaren aldeko konpromisoa erakutsi dute hainbat saltoki, enpresa eta ikastetxek

LANA ▶ «Euskararen normalizazio bidean egindako lanagatik» zorionak eman zizkieten sustatzaileek ▶ 2



Ziurtagiria jaso zuten gizarte eragileen ordezkariak, agintariak eta Jarraipen Batzordekoak atzo. I. ETXEBESTE



LEIRE MONTES

Eraikin berria soldadura eta galdaragintza lantzeko

TOLOSA ▶ Tolosaldea Goimailako Lanbide Heziketa Institutuak langileei «kalitateko formakuntza» eskaini nahi die ▶ 3

LEITZA ▶

Kataluniako haur abesbatza dator

Asketa Txikirekin
elkartrukea dauka ▶ 7

BERASTEGI ▶

Gazte Festak izango dira gaur eta bihar kirol eta kultur saioekin

Gaur, bertso afaria eta Dj Bull;
bihar, mus, herri kirolak eta Laiotz ▶ 6

31

aretoaren
inaugurazioko kontzertu
erraldoia Lekunberrin

Martxoak 19an 22:00etan

**Orishas taldearen disko berriaren
aurkezpena eta artista gonbidatua**

Sarrerren salmenta: 12 € aurretik-15 € leihatilan
Iruña: Typo dendak, Xalbador Megadenda / Lekunberri: Amalur taberna
Tolosan: Oskarbi kafetegia / Zizurkil: Aurrera taberna / Donostia: Bilintx

EUSKARA ▶

Haien konpromisoa erakutsiz, Bai Euskarari ziurtagiria jaso dute Tolosaldeko 79 eragilek

«Euskararen normalizazio bidean egindako lanagatik», zorionak eman zizkieten Akordioaren sustatzaileek herenegun Tolosan egin zuten ekitaldira bildutakoei

IRATXE ETXEBESTE

Tolosaldeko 79 eragilek euskararekiko konpromisoa adierazten duen Bai Euskarari ziurtagiria jaso zuten herenegun Tolosako Udaleko batzar aretoan egin zuten ekitaldian, eskualdeko Bai Euskarari Akordioaren Jarraipen Batzordeko kideen, udal ordezkarien eta euskaltzaleen eskutik. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren izenean jaso zuten agiri bana, haien enpresetan, saltokietan eta entitateetan euskararekiko hartu duten konpromisoaren agiri gisa, eta aurrerantzean ere konpromiso horri eusteko deia egin zieten Bai Euskarari Akordioaren sustatzaileek.

Tolosaldeko Jarraipen Batzordeko kide Emeterio Zaldibiak zoriondu egin zituen Bai Euskarari ziurtagiria jaso duten eragile guztiak, eta euskararen normalizazioaren bidean azken urteetan eskualdean pauso garrantzitsua eman direla aitortuz, aurrera egiteko gonbita luzatu zien udaletxeko batzar aretora bildutakoei, «lana ez delako hemen amaitzen». Zaldibiaren ustetan, euskararekiko konpromisoari eutsi egin behar zaio, «denon artean lortu behar dugulako Tolosaldean euskaraz bizitzea, informatzea, erostea...». Lan hori, ordea, ez dagokie erakunde



Tolosaldeko 79 eragileetako batzuk, herenegun gauaz, Bai Euskarari Akordioaren sustatzaileen eskutik ziurtagiria jasotzen. I. ETXEBESTE

bakarrik; norbanakoen betebeharra ere bada izan, Zaldibiak dioenez, helburu hori lortzea: «Bai euskarari, denon konpromisoa da eta!».

Azken urteetan eskualdean euskararekiko eman diren aurrerapauso horiei «gozo» iritzi zuten Tolosako alkate Jokin Bildarratzek, baina, oraindik ere bere herrian euskara hutsean bizitzea zilegi ez zaiola aipatuz, euskararen egoerak «gazitik» ere baduela esan zuen. «Egia bada euskara Europako hizkuntza zaharrena dela, erreflexioa egin behar dugu zergatik sentitzen garen baztertuta maiz euskaraz mintzatzen garenean. Azken urteetan aurre-

izan zituen Bildarratzek ere, «euskaraz bizi ahal izateko dudan aukera eta eskubidea bermatzeko lanean ari zaretelako zuek ere».

«Aurrera goaz euskararekin»

Eta aurreko bi hizlarien gauza bera eginez hasi zen hizketan Kontseiluko Idazkari Nagusi Xabier Mendiguren ere. Tolosaldean Bai Euskarari ziurtagiria jaso duten 79 enpresa, saltoki eta era guztietako entitateetako ordezkariak zorionak eman zizkien, eta bere «esker ona» adierazi nahi izan zien, bere irudikoz, «euskararen normalizazioaren bidean orain arte egin duten lana «oso garrantzitsua» delako: «Dagoeneko 847 dira Euskal Herrian ziurtagiria dutenak eta euskararekin hartu duten konpromisoa erakusten dutenak gizartearen aurrean».

Bai Euskarari Akordioaren sustatzaileak ahalegin horretan aurrera doazela, eta «garai batean ur txirripa bat bezala hasi zen prozesua ibaitzen ari» dela zioen Mendigurenek, eta baita, helburua, urte batzuren buruan prozesu hori «orokortua» izatea dela ere: «Etengabe jarraitu behar dugu denok lan horretan. Era horretara, euskarari gizartearen dagokion lekua emango baitiogu guztion artean».



EMETERIO ZALDIBIA
JARRAIPEN BATZORDEKO KIDEA

«Konpromisoari eutsi egin behar zaio, denon artean lortu behar dugulako Tolosaldean euskaraz bizitzea»



JOKIN BILDARRATZ
TOLOSAKO ALKATEA

«Zorionak eman behar dizkizuet, euskaraz bizi ahal izateko dudana eskubidea bermatzeko lanean ari zaretelako»



XABIER MENDIGUREN
KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSIA

«Ur txirripa bat bezala hasi zen prozesua ibaitzen ari da; 847 dira Euskal Herrian jada ziurtagiria dutenak»

TOLOSALDEKO ZIURTAGIRIDUN ERAGILEAK ▶

BIDEAN

- ▶ Aguro oinetako konponketak.
- ▶ Amaia arrandegia.
- ▶ Amets taberna.
- ▶ Andretegi loradenda.
- ▶ Aralar kirolak.
- ▶ Arsuaga bizikletak.
- ▶ Bakalau Txiki Jai.
- ▶ Bar Argoin.
- ▶ Bat garajea.
- ▶ Bodegon Ametsa.
- ▶ Caballero Aroztegia.
- ▶ Colors.
- ▶ Eizmendi armategia.
- ▶ Eguzki-lore.
- ▶ ELA Tolosa.
- ▶ Elite kirolak (Deportes Oria, SL).

- ▶ Elurra taberna.
- ▶ Enmarcaciones Tuduri.
- ▶ Ernio autoeskola.
- ▶ Euskal Pizza.
- ▶ Galdaragintza Burni.
- ▶ Ganbara.
- ▶ Graficas Ibarra inprimategia.
- ▶ Goena, SL.
- ▶ Gurutze Autoak.
- ▶ H. Cid, SL.
- ▶ Hol-Atz egur tratamendua.
- ▶ Inmobiliaria Dravasa.
- ▶ Inmobiliaria Irukide.
- ▶ Joana Arbillaga podologia zentrua.
- ▶ Irrintzi taberna.
- ▶ Irura Motor.
- ▶ Iturralde harategia.
- ▶ Klisk argazki denda.

- ▶ Juan Bautista Barriola harategia-urdaitegia.
- ▶ Laier taberna.
- ▶ Lizarriar oinetakoak.
- ▶ Lorea denda.
- ▶ Lumen iluminazioa.
- ▶ Mendia elektrizitatea.
- ▶ MM dekoratzaileak.
- ▶ Muebles Josherra.
- ▶ Na-lsh kafetegia.
- ▶ Neka.argazki denda
- ▶ Nekazaritza Egimendi.
- ▶ Neumaticos Rally.
- ▶ Optika Harotz.
- ▶ Orue erretegia.
- ▶ Sagredo inprimategia.
- ▶ Saldias Miguel aseguru artekaritza.
- ▶ Santa Lucia.

- ▶ Servigraf.
- ▶ Solozabal autoeskola.
- ▶ Talleres Arrastoa.
- ▶ Talleres Garmendi.
- ▶ Tindu margoak, SL.
- ▶ Tolosaldea Igeriketa taldea.
- ▶ Xirimiri txokolategia.
- ▶ Zubiaurre taberna.
- ▶ Zumeta Bizitegia.

GUK ZERBITZUA EUSKARAZ

- ▶ Aixa.
- ▶ Arri oinetakoak eta konponketak.
- ▶ EHNE Gipuzkoa.
- ▶ EHNELUR.
- ▶ Eugenio Uranga harategia.
- ▶ Jakin akademia.

- ▶ Kimetz arropa denda.
- ▶ Kopi Bat, Euskotoner, SL.
- ▶ Mahala esnekiak.
- ▶ Labezain okindegia.
- ▶ Lardi-Bi harategia.
- ▶ Mescal taberna.
- ▶ Ogi-goxo okindegia.
- ▶ R. Zabala sagardotegia.

GUK ZERBITZUA ETA LANA EUSKARAZ

- ▶ Tolosa Herria Hedabideak, SL. (HITZA)
- ▶ Tolosako LAB.
- ▶ Laskorain ikastola.
- ▶ Galtzaundi Euskara Taldea.
- ▶ Arramele AEK euskaltegia.
- ▶ Uzturpe ikastola.

HEZKUNTZA ▶

Soldadura eta galdaragintza eraikina inauguratu dute Tolosaldea Goimailako LHIn

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Lan sailak, Tolosaldeko zenbait udalek eta eskualdeko galdaragintza lantegiek egin dute bat proiektu honetan

LEIRE MONTES

Soldadura eta galdaragintza eraikin berria inauguratu zuten, atzo, Tolosaldea Goimailako Lanbide Heziketa Institututuan (LHI). Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailak, Tolosaldeko zenbait udalek —Tolosa, Ibarra...— eta eskualdeko galdaragintza lantegiek egin dute bat proiektu horretan; 1.677.000 euroko aurrekontua du. «Langileei kalitateko formakuntza eskaintzea» du helburu.

Inaugurazio ekitaldiaren aurretik, proiektuaren bilakaeraren berri eman zuen Jose Mari Elola LHiko zuzendari ohiak. Haren esanetan, eskualdeko enpresek eskatuta hasi ziren proiektua garatzen, 1998an: «Galdaragintzako enpresa gehien dituen eskualdea da gurea, tradizio handia dago; 1.000 lanpostu inguru daude zuzenean arlo horretara lotuta. Enprekin egindako bileretan galdaragintzan formakuntza zuen jendea behar zutela esaten ziguten behin eta berriro. Horregatik sortu zen proiektu hau martxan jartzeko ideia». Sektorearen azterketa egin zuten orduan eta, langileen batz besteko adina 45 urte zirela jabetzeaz gain, «dan taldea berri-zeko eta ezagupen tekniko berriak ezartzeko beharra» ikusi zuten.

Gauzak horrela, 1998ko azaroan konpromisoa sinatu zuten institutuak, Tolosaldeko udalek eta Eusko Jaurlaritzak. Eta 2000ko urtarrilean eskualdeko galdaragintza enpresekin komisioa osatu zuten. 2003an hasi ziren eraikinaren lanak, eta atzo inauguratu zuten. Proiektua «hainbat erakunderen eta eragileren arteko elkarlanetik sortu» dela azpimarratu zuen Elolak. Jesus Arregi institutuko zuzendariak «langileen esfortzua» ere izan zuen gogoan: «Izugarrizko lana egin dute irakasleek, horretarako egokituta ez zeuden beste lekutan aritu behar izan baitute. Eta ez dute inoiz motibazioa galdu».



Ezker-eskuin: Jokin Bildarratz, Anjeles Iztueta eta Iñaki Zabala, atzo, Lanbide Heziketa Institututuan. L. MONTES

Proiektuan parte hartu duten erakundeen, eragileen eta enpresen ordezkari ugari izan zen atzoko ekitaldian. Anjeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua, Iñaki Zabala Lan sailburuordea eta Jokin Bildarratz Tolosako alkatea mintzatu ziren mahaiaren atzetik. Eta ikusleen artean zeuden Antton Izagirre eta Joxe Gurrutxaga Tolosako alkate ohiak, Onintza Lasa, Oscar Renedo eta Angel Yañez Tolosako zinegotziak, eskualdeko zenbait herritako alkateak, Bernardo Goikoetxea Tolosaldea Garatzeneko gerentea, Peñascal Fundazioko eta eskualdeko zenbait ikastetxetako ordezkariak, eta Tolosaldeko galdaragintza enpresetako kideak, besteak beste.

Formakuntza helburu

Bildarratzek formakuntza «gizartearen oinarri nagusietako bat» dela esan zuen agerraldian, eta Hezkuntza sailak 2004-2007rako aurkeztutako plana izan zuen hizpide: «Elkarlanean jardun behar dugu, plana ardatz hartuta. Formazio zentro hauek denon artean indartu behar dugu. Guztiok honetan inplikatzera animatu nahi zaituztet».



Irakasle bat, makina baten funtzionamendua erakusten. L. MONTES



Inaugurazioara bildutakoak, makinaren pabilioia bisitatzen. L. MONTES

ANJELES IZTUETA
HEZKUNTZA SAILBURUA

«Proiektuak bikain uztartzen ditu tradizioa eta berrikuntza: erroak zaindu ezean, zainik gabeko arbolak gara»

IÑAKI ZABALA
LAN SAILBURUORDEA

«Lorezaina izan behar du enpresaburuak, eta baratzan baldintzarik onenak sortu langileen formakuntzarako»

Zabala Lan sailburuordeak «Tolosaldeko herritarrak eta enpresak zoriondu» zituen. Era berean, enpresak eta enpresaburuak ikusteko hainbat erataz mintzatu zen. Haren esanetan, «gaur egun enpresek ahalmenak behar dituzte, bezeroek baloratzen dituzten gaitasunak, eta beste enpresek ez dituztenak. Enpresaburuak lorezaina izan behar du, eta baratzan baldintzarik onenak sortu behar ditu langileen formakuntzarako. Hori da eraikin honen gakoak: langileen ahalmenak hobetzea».

Elkarlana oinarri

Proiektua «enpresen beharretatik sortu» dela azaldu zuen Zabalak, eta «erakunde, enpresa eta eragile askoren ahalegienen emaitza» dela gaineratu zuen. LHiren eta Jaurlaritzaren arteko lankidetzara ere azpimarratu zuen bere jardunean.

Iztueta Hezkuntza sailburua, azkenik, proiektuak «tradizioa eta berrikuntza bikain uztartzen» duela esan zuen: «Erabateko garrantzia du hori argi izateak; erroak zaindu behar ditugu, bestela, zainik gabeko arbolak gara». Era berean, proiektuak Lanbide Heziketa planaren bost oinarriekin bat egiten duela azpimarratu zuen: «Hitza betetzea, teoriaren eta praktikaren arteko koherentzia, adostasuna bilatzea, noren alde lanean ari garen jakitea, eta helburuak argi edukitzea». Elkarlanaz harro agertu zuen Iztueta: «Hemen gauden guztiok eta bakoitzak du bere zatia gaur [atzo] inauguratuko dugun proiektu honetan». Bere jaioterrian izateagatik ere «oso pozik» mintzatu zen.

Sailburua bera izan zen eraikinaren inaugurazio plaka desestali zuena, ikusleen txalo artean. Ondoren, eraikina bisitatu zuten bertara bildutakoek, eta, irakasleen eskutik, zenbait makinaren funtzionamendua ikusteko aukera izan zuten.

ZIZURKIL ▶ KULTURA

'Pas de basque' ikuskizuna aurkeztuko du Argia dantza taldeak bihar Intxaurren frontoian

Juan Antonio Urbeltzek sortutako emanaldia 20:00etan hasiko da eta ikuskizunaren ateratzen den sarrera diruko zati bat Korrikaren alde izango da



Garai bateko herri dantzak berraurkitu nahi dituen proposamena da *Pas de basque* ikuskizuna. HITZA

IMANOL GARCIA

Korrika 14 eskualdetik igaro bada ere, oraindik euskararen aldeko ekimenarekin lotuta dagoen ekitaldirik geratzen da. Horrela, bihar arratsaldean, 20:00etan hasita, Zizurkilgo Intxaurren frontoian Argia dantza taldearen *Pas de basque* emanaldia ikusteko aukera izango da. Sarreretatik jasotzen den diruaren zati bat Korrikaren alde emango da.

Pas de basque ikuskizunak ondare tradizionalaren sustarrietatik abiatu eta modu erabat garaikidean loratzen den etorkizuneko euskal dantzaren ereduaren bilaketan urrats berri bat da.

Barroko garaiko balet sorkuntza apartak inspiratu zi-

tuen mundu hori dagoeneko desagertu egin da. Baina, han hemenka, pospolutxoak bailiran, gorputz txikidun garbuzuk bizirik diraute. Beraz, *Pas de basque*, ikusentzulegoarentzat, garai bateko herri dantzak berraurkitu nahi dituen proposamena da.

Ikuskizuna brikolaje lan xaloda da, eta bertan Juan Antonio Urbeltzek dantza, emozioak, erritmoak, keinua, musika eta lisura bezalako lanabesak erabiltzen duen maisutasuna erakusten du berriz ere. Ikuskizunak hiru koreografia biltzen ditu, tradizioetik etorkizunera lotsagabeki begiratzen duten hiru proposamen: desafio-dantzak; patuaren dantzak eta Inauteria.

Juan Antonio Urbeltzek adierazten duenez, «adierazpen honek, agian baletoko lexikoko enblematikoak, zor zaiona ematen dio, bere unibertsaltasunean, usadiozko euskal dantzaren kalitateari. Lan berri honenkin, iritzi orokorrera aurkiten dugu ohiko dantzatik jaiotako ikuskizuna, keinuan kalitatea bilatzen duena, pausoa, jauzia, arabeskoan edo oinez ibiltze hutsean dotorezia eta indarra, instrumentu interpretazio bertutetsu batekin esna amets egitea ahalbidetzen diguna».

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

Euskadiko selekzioarekin bigarren Danena-Olaederrakoak

I. GARCIA

Espainiako Junior Txapelketan izan ziren Danena-Olaederra taldeko pultsulariak Euskadiko selekzioarekin. Taldeko bigarren sailkatu ziren, Andaluziaren atzetik. Bakarka aipatze-koak dira Ekaitz Kortajarenak 62 kilotan lortutako hiru dominak —arrankadan, brontzea; bi denboratan, urrea eta total olinpikoan, zilarra— eta Teddy Martinezen hiru brontzeak 77 kilotan. Bihar izango dute hurrengo lehiaketa, Iruñean. Euskadiko Teknika Eskolarra Txapelketan parte hartuko dute

VILLABONA ▶ HEZKUNTZA

Itziar Rozasen bisita izan dute Ikastolako ikasleek

Idazlearen 'Yako eta haizea' irakurri ondoren berarekin solasean aritzeko gonbidatu dute

I. GARCIA

Jesusen Bihotza Ikastolako ikasleek bisita berezia izan dute aste honetan. Izan ere, Itziar Rozas idazle lasartearra izan zen bertan. Idazleak beren liburuen aurkezpena egiten aritu zen eta bide batez ikasleekin solasean.

Aurretik idazlearekin izan dute kontakturik, beren liburuen bitartez. DBH 1. mailako ikasleek Itziar Rozasen liburu bat irakurri dute, *Yako eta haizea* izenekoa. Eta liburuan ira-

kurketa aprobetxatuz gonbidatu zuten idazlea ikastolara, hain zuzen, horren inguruan aritzeko.

Ikasleak gustura egon dira idazleari era guztietako galderak egiten eta baita idazlearen erantzunak jasotzen ere. Idazlea bera ere gogoz aritu da ikasleekin solasean, bai liburuen inguruan eta baita bere lana eta bizipenenen inguruan ere.

Ekimena Idazle Elkartearen bitartez bideratu da. Jesusen Bihotza Ikastolaren helburua ikasleek idazlea bertatik ezagutzea izan da, berarekin identifikatzea, bere kezak eta «idazminak» ezagutzea eta honekin batera, irakurzaletasuna bultzatzea. Horrez gain, ikasleak literaturaren euskal munduan murgiltzea bete betean.

ANOETA ▶ MUSIKA

Kauta eta Ekin taldeak gaur Gaztetxean

Anoetako Gaztetxean kontzertu bikoitza izango da gaur gauean. 23:00etan hasiko da lehenengo taldea, Algortako Ekin taldea. Orain bost urte sortu zen taldeak Etsaiak, Habeas Corpus eta KOP bezalako taldeen eragina du. Ondoren Andoaingo Kauta taldea ariko da. Euskadi Gazteko maketa lehiaketa irabazi ondoren aski ezaguna egin den taldearen laugarren bisita izango da Anoetara. Emanaldia hasi aurretik afaria egingo da. Izena eman nahi duenak Itzuli tabernan du aukera.

ANOETA ▶

Yoga ikastaroa apiriletik ekainera

Yoga ikastaroa antolatu du Udalak apirilaren 4tik ekainera 30era bitartean. Klaseak Hozpel 5eko udal lokalean izango dira, astean behin. Aukera ezberdinak izango dira: astelehenetan, 18:30tik 20:00etara; astearteetan 9:30tik 11:00etara eta asteazketan 18:30tik 20:00etara. Ikastaroaren prezioa 41,20 euroko da hiruhilabetea. Udaletxean izena ematerakoan kontu korrontea eman behar da matrikula kobratu ahal izateko. Izena emateko azken eguna hilaren 23an da.

VILLABONA ▶

Areto futboleko bigarren fasea hasiko da bihar

Bihar hasiko da Olaederran futbol aretoko txapelketaren bigarren fasea. Bihar, 15:00etan, Iratxo Amaro/Itzuli Taberna B; 16:00etan, The Best Team/Txindoki Taberna; 17:00etan, Danon Txokoa Bar/How-High Crem; etzi, 9:00etan, Ospela/Alegiko Gaztetxea; 10:00etan, Bibalbirjen/Itzuli Taberna A; 11:00etan, Irurako Gazte Asanblada/Cafe Iruña; 12:00etan, Karhe Oinetakoa/Teodosio Bar; 13:00etan, Goringo F.C./Anoetako Gazte Asanblada.



LIZARBI
Kutxa, mahai, aulki etab.
Altzariak • Zurgintza orokorra
Tailakeskuz eginak Zaharkinen berriztatzea
San Esteban auzoa
Tel./Faxa: 943 650 063 • TOLOSA

ALEGIA ▶ INGURUMENA

Urkiak eta haritzak landatuko dituzte gaur Zuhaitz Egunean

San Joan eskolako eta Aralar institutuko ikasle, irakasle eta gurasoak Langaurren egingo dituzte eguneko ekitaldiak



Umeek jardunaldi polita igaro zuten aurreko urteko Zuhaitz Egunean, pagoak landatuz. O. ESKITXABEL

NOELIA LATABURU

Ingurumenaz gozatzeko aukera paregabea izango dute Alegiako San Joan ikastetxeko eta Aralar institutuko DBH 1. mailako ikasleek, ez ohiko eskola egun honetan, izan ere Zuhaitz Eguna antolatu dute Langaurren. Ohorezko ikastaroa jasoko dute, beraz, horretarako ikasketak liburuak itxiko badi-tuzte ere.

Goizean goiz abiatuko dira taldeka eskolako ataritik; 09:15ean dute hitzordua 4 urte-z gorakoek eta ibilaldi neur-

tuan helduko dira Langaurre-raino. 10:00etarako goran izatea espero dute. Bi eta hiru urte bitartekoak, berriz, autoetan eramango dituzte haraino, hatak ere zuhaitz landaketa egin dezaten.

Behin denak hara iristerakoan hasiko dute zabor bilketa, eta irakasleek azaldu dutenez «inguru txukun utziko dute gerora zuhaitz landaketarekin hasteko».

Eta lan guztiek bere saria dutenez, zabor bilketaren ostean atsedenaldia egiteko parada ere izango dute gaztetxoek, ha-

maiketakoak eginez. Behin indarberriturik, eguneko ekitaldi garrantzitsuena burutuko dute, zuhaitzen landaketa, alegia. «Aurretik landaketa egokia burutzeko azalpenak emango dizkiegu ikasleei», azaldu dute irakasleek. Eki-men hau urtez urte egingo dute, urtero landatzen duten zuhaitz mota aldatuz doalarik. Aurtengoan urkia eta haritza zuhaitz moten txanda izango da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak erabakitzen du urtez urte zein zuhaitz mota landatu. Honekin

USADIOA

Bost urte daramate Alegian Zuhaitz Eguna antolatzen, Aldundiak erabakitako zuhaitz motak landatuz

batera, inguru egokia aukeratzeko ardura ere berea da. Behin landaketa burututa, zuhaitz hauen hazkuntzari jarraipena egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiak. Aurreko urteko Zuhaitz Egunean, esaterako, ehun pago inguru landatu zituzten ikasleek, irakasleek eta gurasoek.

«Umeek oso gustura landatzen dituzte zuhaitz berriak eta horrela ingurumenarekiko errespetua eta konpromisoa hartzen dute», adierazi dute San Joan eskolako irakasleek. Hori dela eta, garrantzitsua deritzote urtero egun hau antolatzeari. Zuhaitzen landaketaren ostean, bazkari legea egingo dute gaztetxoek, bi eta hiru urtekoek umeek 12:30ean jaitsiko dituztelarik.

Gurasoak ere konpromisoz

San Joan eskolako eta Aralar institutuko ikasle eta irakasleekin batera, gurasoak ere gonbidatuta daude Zuhaitz Eguneko ekitaldietara. «Ahal dutenak behintzat animatzen dira eta asko dira gurekin batera etor-tzen diren ikasleen gurasoak», azaltzen dute eskoletatik.

15:00etan berriz ere beheruntz abiatuko dira denak, arratsalderako antolaturiko jo-koak burutu ostean. Honela emango diote amaiera zuhaitz egunari. Ikasgeletatik kanpo jaso dezaketen irakaspen garrantzitsuena: ingurumenarekiko konpromisoa.

Eguraldia okertuko balitz eta euria egingo balu San Joan eskolako bosgarren eta seigarren mailako eta Aralar institutuko DBH1. mailako ikasleek soilik egingo lituzkete Zuhaitz Eguneko ekitaldiak, gainontzekoek euren ohiko eguneroko ikasgeletan geldituko liriateke.

ALEGIA ▶

Jai Batzordeak beste bilera antolatu du

Alegiako Jai Batzordeak beste bilera bat antolatu du datorren asterako. Herriko festen prestateta izango da gai nagusia. Batzordeak burutuko duen bilera hau, beraz, Udaletxean izango da datorren asteartean, martxoaren 22an, 19:30ean.

ALTZO ▶

Administrari laguntzailea behar da Udalean

Altzoko Udalean administrari laguntzaile bat kontrata-tzeko oposizio lehiaketa burutuko da. Lanaldia lau ordukoa izango da eta %100era arte zabaldu ahal izango da. Eskola Graduatua, LH1 edo baliokidea, 3. hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoak izango dira posturako. Epea 20 egun naturaleko epean izango da, BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Informazio gehiagorako Altzoko Udalera deitu daiteke, 943 65 24 13 zenbakira.

MUSIKA ▶

Loatzo musika eskolaren emanaldiak

Loatzo musika eskolak emanaldiak eskainiko ditu eskualdeko hainbat herritan. Gaur Alegian izango dira 18:00etan Kultur Etxean eta Zizurkilan 19:00etan goiko elizan. Astelehenean, berriz, Ibarran eta Adunan eskainiko dute saioa, 19:00etan Kultur Etxean bietan ere. Asteartean ere Larraulen eta Villabonan izango dira; lehena 18:00etan elkartean izango da eta 19:00etan Gurea zinean bigarrena.

hitza *lagunen*
txokoa

▶ Astebukaera honetan **Leidorren** emango den 'EL ESCONDITE' filmerako 2 sarreraren irabazlea:
IDOIA LARRAZ AZKARATE
HITZAren harpidedun laguntzaile tolosarra.

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ UDABERRI DANTZARI TALDEAK martxoaren 19an antolatutako ERROMERIAKO afariarako 2na txartelen harpidedun laguntzaile irabazleak:

JOAKIN TOLOSA (AMEZKETA)
IZASKUN IRAOLA (BIDANIA)

ERROMERIA
2005/03/19

*Trikipotua
*Aflara
*Dantzaldia
Espainia eta Lurraldeak

UDABERRI

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23**Baliarrain.** Medikua: 88 90 03**Berastegi-Elduain.** Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34**Ibarraldea.** Osasun etb: 672411**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Lizartza.** Medikua: 68 20 77**Orendain.** Medikua: 65 55 95**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona. Anbul.: 00 69 70**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitza autob.: 948 221015

▶ Taxis: 67 04 20

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Morant, R. Zabalzarreta 1

(Tolosa). 943 67 38 49

Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publi@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaldea. 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUAN

Leitza. Oialde taberna alokatzen

da. Jateketa aparte alokatzeko


aukera. Interesatuak deitu

948 51 02 93 zenbakira.

BERASTEGI ▶ KULTURA

Berastegiko Gazte Festak izango dira asteburu honetan

Gaur herri afaria eta Dj Bull izango da goizalderarte; bihar, mus txapelketa, herri kirolak eta Laiotz taldearen musika



Gaur Dj Bull irurarra ariko da herriko frontoian. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Urtero garai honetan egin ohi duten bezala, Berastegin Gazte Festak izango dituzte gaur eta bihar Urepele elkarteak antolatutako eta Berastegiko Udala eta Zelai tabernaren laguntzarekin.

Afari oparo batekin emango diete festei hasiera; afari honetan herriko bertsolariek giro polita jarriko dute. Eta festak, noski, afalostean jarraituko du. Izan ere, Dj Bull-en musikarekin goizalderarte gozatu ahal-ko da herriko frontoian.

Bihar arratsaldean, pasa den

asteburuan hasiera eman zioten mus txapelketaren finala jokatuko da. Eta ondoren, herriko gazteen artean herri kirolak izango dira; oskol apostua, korrika, zaku karrera eta txingak egin beharko dituzte.

Festa goizaldean amaituko da bihar musikarekin. Kasu honetan, Laiotz taldea igoko da herriko frontoian jarritako eszenatokira.

EGITARAUA ▶
GAZTE FESTAK

GAUR

21:00. Herri afaria bertako bertsolariek giroturik.**00:30.** Dj Bull-en musika goizalderarte.

BIHAR

15:30. Mus txapelketaren finala.**18:00.** Herriko gazteen arteko herri-kirolak.**00:00.** Laiotz taldearen musika goizalderarte.

IBARRA ▶ POLITIKA

«Udalak ez dio 'apartheid' egoera honi amaiera eman nahi», dio Askatasunak

Ibarrako alkatearen idatziari erantzun dio Ibarrako Askatasunak

I.TERRADILLOS

Ibarrako Askatasunak Chelo Romeoren idatziari erantzunez hiru puntu azpimarratu nahi dituela adierazi du:

Batetik, Uzta herri plataforma erabat baztertzeko duela Udalak diote eta inongo borondate politikorik ez duela *apartheid* egoera honi buelta emateko.

Bestetik, Ibarrako apaizari erreferentzia egiten zitzaionean, pertsona mailan egiten dutela, eta ez betetzen duen karguagatik azaldu dute. «Pertsona honek herrira ailegatu

zenetik, trabak besterik ez ditu jarri», diote. «Nondik dator herriko jaiak Emeterio Arrese parkera lekualdatzeko ideia? Berak eta bere lagun mina den Mikelek (kasualidadez EAJ-ko zinegotzia dena) bultzatutako proiektua da», gehitzen dute.

Udalaren paperaren inguruan, «jakin badakigu Udalen papera ez dela erreprentatiboa izan behar, baina hala eta guztiz azken finean, hori da egiten duena», diote eta «Galdetu Ibarrako komertzianteei ea ze grazia egin zien zuek Erantzari baimena emateak, erosketak egin ahal izateko ko-

txea doble filan uzten zutenei multa jartzeko», gehitzen dute Askatasunakoek. Bukatzeko, Romeo alkateari bere posturako ezgauza dela esatean, ez dutela esateagatik esaten diote. «Nola egin zaitzeko postu horretan eskaraz jakin gabe?»

Ibarran gertatzen diren gauzetaz jabetzen direla argi utzi nahi du Askatasunak. «Badakigu gure idatziak eta eguneroko lanak molestatzen zaituztela, eta ziur egon boterea zirikatzeko jarraituko dugula», esanez amaitzen dute Udalarik zuzenduriko erantzuna.

BELAUNTZA ▶

Aste Santuan KZgunea oporretan

Aste Santua dela eta martxoaren 21etik 29ra (biak barne) KZgunea oporretan hartuko ditu. Bitarte horretan udalak, hala nahi izanez gero, KZgunea irekitzeko aukera izango du, baina kontuan izanik edozein arazoren aurrean martxoaren 30 arte inork ezin izango duela lagundu.

IBARRA ▶

Bertso-afaria bihar Xepla elkarteak

Bihar, bertso-afaria egingo da Ibarren, Xepla elkarteak, Hauspoak antolatuta. Bertsolariak Bixente Gorostidi eta Millan Telleria izango dira, eta afaria 20:30ean hasiko da. Afarirako txartelak Ibarrako tabernetan eskuratu daitezke.

IBARRA ▶

Afari solidarioa gaur, eta bihar, Eukaristi berezia

Ibarrako Aste Misiolariaren barnean, gaur afari solidarioa egingo da 20:30ean, eta bihar Aste Misiolariarekin amaitzeko Parroki elkarteak 19:00etan Eukaristi misiolaria ospatuko dute hainbat sinbolo eta espresioen laguntzaz.

GAZTELU ▶

'Aitorpen pribatuak' filma gaur Kontzejun

Gaur, 19:30ean *Aitorpen pribatuak* izeneko filma izango da ikusgai Gazteluko Kontzejun tabernan.

BERASTEGI ▶

Donostiara irteera antolatu du Gaztainondok

Gaztainondo elkarteak Donostiara irteera antolatu martxoaren 22rako. Kursal-ena dagoen *Storaro* erakusketatik ikusiko dute, eta ondoren Ojartzunen egingo da bazkaria. Izen-ematea elkartearen egingo da.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Igor Astibia gose greban,
beste euskal presoekin

Itxialdia bukatu eta berehala hasi zen 16an

J. ASTIBIA

Hirugarren eguna izanen du gaurkoa, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak gose greban. 713 lagun ari dira borrokaldi honetan parte hartzen, EPPK osoa, bakoitza dagoen kartzelean. Horrela, Igor Astibia Leitzako preso politikoa ere, 10 eguneko itxialdia bukatzearekin batera, martxoaren Setik 15erako txandan parte hartu zuen, gose greban dago 16eko 00:00 ordutan sartuta, preso

dagoen Navalcarnero (Espainia) kartzelan.

Igor Astibia ez ezik, eskualdeko Goldaraz, Zubieta eta Elizegi presoek ere beren elkartasuna adierazteko, elkarretaratzea egin zuten herenegun iluntzean Lopeneko atarian hainbat herritarrek. Han bildutakoek gogora ekarri zituzten, EPPKa egiten ari den borrokaldiaren aldarrikapenak, hain zuzen ere beren «status politikoa ezagut diezaieten, Euskal Herrian egoteko duten eskubi-



Elkarretaratzean eskualdeko presoak izan zituzten gogoan. J. ASTIBIA

dea, bake prozesuan zuzenki parte hartuz eta oinarrizko eskubideak errespetatu dakizkien» eskatzen dutela zioten. «700 eta piko lagun daude

gose greban, kartzelean, eskubideak diren eskaerak lortzeko borrokan. Latza da gero! Eta denak geldirik!», zioen parte hartzaile batek.

LEITZA ▶ KULTURA

Els Verdum haur abesbatza
dator Asketa Txikirengana

Kataluniatik datoz hiru egunetarako eta igandean kontzertua emanen dute

JAIONE ASTIBIA

Bihar ailatuko da Kataluniatik *Els Verdum* haur abesbatza Leitzara, Asketa Txiki bertako abesbatzari bisita egin eta elkarrekin abesteko intentzioz.

Igualdatik (Katalunia) datoz, hurrengo hiru egun hauetarako. 50 bat lagun dira guztira: haur abeslariak, begiraleak eta hainbat guraso ere etorriko dira, gurera. «Urtero egin ohi duten ateraldian Euskal Herria etorri nahi omen zuten eta hara, Leitzara aukeratu», halaxe adierazi diote HIRZARI Asketakoei. Eta ilusioz hartuko dituzte lagun kataluniarrak, izan ere gero hauek joanen dira haruntz, hil honen 31ean, apirilaren 3a arte: «Udaberriko oporrak igarotzeko beste era bat izanen da», zioten eta eguneko ailtzeko irrikitan zeudela adierazi. Igualadan, kontzertuaz gain, beste ekitaldi batzuk ere zain omen dituzte, baina «bertaratu arte sorpresa» omen dira.

«Elkarretaratzea aberatsa» izanen dela iritzi zioten, bestalde, hain zuzen ere, egonaldia Asketa Txikiko kideen familien etxeetan egingen dute eta egingadako bidaia, «herrian bertako txoko, famili eta kultura ezagutzeko» baliatuko baitute. Horretarako agenda bete jarduerara



Atzo Asketa Txikikoek prestaketa-sasioa egin zuten. JAIONE ASTIBIA

antolatuko dituzte. Horrela bada, bihar bertan, arratsaldean, euskal jaiaren erakustaldia izanen dute, kirola eta kultura uztartuz: pilota eskolako haurren arteko pilota partiduak izanen dira ikusgai eta ondoren Aurrerako dantzari gazteen saioa. Biharamonean, berriz, ere Leitzalarrera irtenaldia egingen dute, ondoren haurren arteko

harremanak sendotzeko jokoa eginez, herrira itzulitakoan beti ere. Eta azken egunean, Gorriltenera joanen dira ikustaldia egitera, gero Iruñea ezagutzera joateko.

Hori guztiaz gain, beren es-tseguak ere egingen dituzte, igandean egingen duten kontzerturako. Eguerdiguerdian, 12:00etan eskainiko dute kon-

EGITARAUA ▶

Asketa Txiki-Els Verdum abesbatzen elkarretaratzea.

BIHAR, LARUNBATA

13:00, plazan. Ongietorria.
17:00, plazan. Pilota partiduak.
Ondoren. Dantzariak.

ETZI, IGANDEA

12:00, elizan. Kontzertua.
18:00, plazan. Jokoa.

tzertua bi abesbatzek elkarrekin. Atzo Asketa Txikikoek entseguan izan zen HIRZA eta hantxe aritu ziren abestiei azken ukituak ematen, katalaneraz zenbait eta *Agurra* kanta eta dantzatzuz... Jada, eguna hortxe ikusten zuten eta gehientsuenak urduri samar ere bazu-

den.
Kontuak kontu, gonbidatu asko heldu da herrira egun hauetarako eta aipatzekoa da jende askok parte hartuko duela, ekitaldien prestakizunetan eta arreta lanetan ere: Asketa abesbatzako kideez gain, haurren gurasoek ere, hainbat otordu prestatzeko lana izanen baitute. Beraz, bihartik aurrera *benvinguts Els Verdum*.

LEITZA ▶

‘Frío sol de invierno’ filma
ikus daiteke
honetakoan

laz, Donostiako Zinemaldian izana eta zuzendari gazteen Goya saria lortutakoa

J. ASTIBIA

Asteburu honetan Pablo Malok, 2004ean zuzendu zuen *Frío sol de invierno* filma botako dute Leitzako zinemaren gaur, 22:30ean eta bigarren-egandean, 19:30ean. Iazko Donostiako Zinemaldiko *Zabaltegin* aurkeztu zuten eta bestalde, zuzendari gazteen Goya delako saria ere eskuratu zuen.

Ordu eta erdi pasatxoko proiektzio honetan, Marisa Paredes eta Unax Ugalde dira protagonista, Rakel eta Adrianen paperetan, Javier Pereira, Gonzalo, eta Marta Eturak. Mimo, ere parte hartzen dutelarik.

Drama honetan, sanatorioetik atera berria den Adrian gazteak, familia diruduneko eta amarik gabea, bere aitaren abokatuengandik jasotzen du, hura beste emekume batekin bizitzera, beste hiri batera doala eta jaiotetxea beretzat uzten diola. Amorratioz, haren bila doa. Gonzalo eta bere ama Rakelekin egiten du topo.

KIROLA ▶

Hainbat final
jokatuko dute
Aurrerako
pilotariak

J. ASTIBIA

Bihar, 10:00etatik aurrera, Aurrera elkarteko pilotariak bi txapelketetako finaletan parte hartu behar dute.

Belatekoan, umeen mailan, Donibanean ariko dira, Olanoko Sagastibeltza; eta Galarreko Eskirozten, infantiletako Aranburu- Jaunarena eta ka-detetako, Alustiza-Olano.

Euskal Herriko palako finala, berriz, Ordizian jokatuko da, 10:00etan, nesken sailan. Kasu honetan, Agirre-Iraola dira azkenera iritsi direnak, eta Errekako Iriarte ahizpak dituzte aurrean.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko martxoaren 18a, ostirala ▶ III. urtea

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

16

hotzena

11

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALARREN

Guardetxe: bai

Albi: bai

Pagomari: bai

Igaratza: bai

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurkitza.
Kultura Saila

943

30 43 46

HITZA-KO BEZEROEN
ARRETA ZENBAKIA

(zailantzak, harpide egiteko...)

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Languarren. 10:00etatik aurrera. San Joan eskolako ikasleen zuhaitzak landatuko dituzte Languarren 10:00etan.
Berastegi. Gazte Festak: herri afaria 21:00etan bertako bertsolariekin eta DJ Bul 00:30etik goizalderarte.
Ibarra. Bihar bertso-afaria Xepla elkarteak Hauspoa elkarteak antolaturik Bixente Gorostidi eta Millan Telleria bertsolariekin. Txartelak Ibarra tabernetan salgai.
Ibarra. Aste misiolariaren barnean, afari solidarioa 20:30ean.

Tolosa. Herriko ikastexetako eta Baionako ikasleen poesia errezitaldia Leidor zineman 18:30ean.
Tolosa. Alderdi politikoen arteko mahai-ingurua Zentro Gerontologikoaren itxieraz udaltxeko batzar aretoan 19:30ean.
Tolosa. Udaberri Dantzari Taldeak biharko Abastos plazan antolatua duen II. Erromeria Herrikoiko afarirako txartelak salgai daude Kimetz arropadendan, Garikano zapataadendan eta Elurra tabernan 20 eurotan.
Tolosa. Alpino Uzturrek antolatutako mendi argazki lehiaketako lanak Kultur Etxean.

KIROLAK

GAUR

Pilota (Gipuzkoako Elkarteak Arteko Txapelketa)
▶ Beotibar 2-Zumaia 2 (Zesta-punta. Nagusiak. Beotibar 19:30)
▶ Beotibar 1-Donostia Jai Alai (Zesta-punta. Nagusiak. Beotibar 19:30).
▶ Lazkao-Aurrera Saiaz (Eskuz binaka. Jubenil 1. maila. Lazkao 20:15).
Areto futbol
▶ Euromar-Laskorain (1. Maila A. Antoniano 21:00).

BIHAR

Pilota (Gipuzkoako Elkarteak Artekoak)
▶ Kuku-Landare 1 (Pala motza. Nagusiak. Zumarraga 11:30).
▶ Aurrera Saiaz 1-Lazkao 2 (Eskuz binaka. Infantilak. Ikaztegieta 16:00).
▶ Elordi Herrigintza-Behar Zana (Eskuz binaka. Infantilak. Ikaztegieta 16:00).
▶ Lazkao 3-Aurrera Saiaz (Eskuz binaka. Infantilak. Lazkao 17:00).
▶ San Esteban-Lazkao 1 (Eskuz binaka. Infantilak. Lazkao 17:00).
▶ Zarautz 1-Elordi Herrigintza (Eskuz binaka. Jubenil 2. maila. Aritzbatalde 17:00).
▶ Elordi Herrigintza-Aurrera Saiaz (Eskuz binaka. Kadete 3. maila. Ikaztegieta 17:30).

Saskibaloia

▶ Aralar kirolak-Ganbara Euskalduna (Nagusiak. Berazubi 17:00).

Futbola

▶ Tolosa-Urola (Goren maila. Berazubi 16:30).
▶ Tolosa B-Euskalduna (Zubieta 15:30).
▶ San Ignacio-Aurrera (Lurraldeko 1. Maila. Iruñea 15:45).
▶ Gazteak-Danena (Lurraldeko 2. maila. Igoera fasea. Unbe Eibar 18:00)
▶ Donibane-Amaroz (Lurraldeko 2. maila. Kopa. Trintxerpe 17:45).
▶ Billabona-Texas Lasartearra (Jubenil 1. maila. Arratzain 16:30).
▶ Intxurre-Vasconia (Jubenil 1. maila. Elorri 16:30).

Areto futbol

▶ Hegoalde-Soto del Real (Ohozeiko maila. Berazubi 19:00).
▶ EHU-Lauburu (1. Maila Nazionala. Gaska 18:30).
▶ Ceramicas Nogales-Laskorain (1. Maila Nazionala B. Asitgarraga 18:15).

▶ San Juan-Lauburu (Jubenil Liga Nazionala. San Juan 18:00).

▶ Cash Converters-Tecnun (Olaederra 18:30).
▶ Eskolapioak B-Irizabal arrainak (1. Maila A. Eskolapioak 15:30).

Futbol 7

▶ Ibarra Gozte Asanblada-Knauf Dec. Nuñez (1. Maila. Beasain 1. 20:30).
▶ Rock Star-Lanbroa Dickens (2. Maila. Beasain 2. 19:30).
▶ Bar Shanti Kirolak-C. Aleman (2. Maila. Beasain 1. 19:30).

ETZI

Pilota

(Gipuzkoako Elkarteak Artekoak)
▶ Laskorain-Maria eta Jose (Zesta punta. Alebinak. Mutriku 11:30).

Futbola

▶ Tolosa-Beti Ona (Neskak. Igoera fasea. Elorri 16:00).

Areto futbol

▶ Ventanas ISU-Trans. Lakunza (Autonomikoa. Lasarte 11:00).


MUSIKA

Alegia. Kultur Etxean Loatzo Musika Eskolako ikasleak eta Txintxarri abesbatza 18:00etan.
Tolosa. Udal Musika Eskolako harizko soinu tresnen ikasleak 20:00etan bertan.
Tolosa. Hedtrip eta Neu 22:30ean Bonberenean.
Tolosa. Sr. Mostaza musika taldearen emanaldia 23:30ean Fronton kafetegian.
Zizurkil. Loatzo Musika Eskolako ikasleak 19:00etan goiko elizan.

ZINEMA

Gaztelu. Aitorpen pribatuak kontzejun 19:30ean.
Leitza. Frio sol de invierno. 22:30ean zineman.
Tolosa. El escondite. 22:30ean Leidor zineman.

AGURRAK ▶



EUSKAL PRESOK GOSE GREBAN

Laugarren eguna. Eta bihar... Askatasuna. Eutsi gogor! Eskualdeko Askatasuna.

Juan Joxe Amenabarro Iturrioz

I. urtemuga

Ohartu gara ez dutela egunek aurrera egiten ez bada amets galduetara erortzeko; eta oroitzapenez bete dela mundua ez baitira gogora etortzen diren ilusio faltsuak besterik... Eta ez genuke hemendik joan nahi, attona, argirik ikusten ez den eremura bakarrik baikaude zu ez zaudenetik

ESTI, MARI, LANDER ETA JOXE

martxoaren 20an haren omenezko meza izango da Villabonako Jesusen Bihotza Parrokian eguerdiko 12:30ean
Villabonan, 2005 martxoaren 18an



URTE ASKOAN
Aratz (Zizurkil). Gaur 9 urte.
Etxekoan partetik zorian eta ondo pasa.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebelteak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaiaberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaltxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!